

6. AZTERKETARIA

OROKORRA C1

Ongi menderatzen ditu hizkuntzaren hainbat alderdi, eta horrek aukera ematen dio gai orokor, akademiko, profesional eta aisiakoei buruz argi eta estilo egokian jarduteko formulazioa aukeratzeko, esan nahi duenari mugak jarri gabe.

3. azterketaria gai da egokitu zaion gaiari buruz (Medusen ugaltzea gure hondartzetan) azalpena osatzeko nahiz eta akats batzuk izan, batez ere zuzentasun mailan, eta zuzenago esanda, aditzaren erabileran. Gaiari buruzko azalpen edo detaileak ematerakoan, zenbaitetan, ez du lortu ideiak ondo lotu edo kohesionatzea. Sarritan errepikatzen du “baina”, eta esaldia osatzeko falta duen hitzaren bila ari denean lagungarri bezala erabili du. Ondorioz, jarioz hitz egiteko gai den arren, batzuetan hitza aukeratzean zalantzak izan ditu eta horrek abiadura moteldu dio.

3. azterketariak erakutsi du C1 maila baduela; hau da, gai da adierazi nahi duena modu egokian adierazteko. Argi dago azalpenean zailtasun handiagoak izan dituela, batik bat zuzentasunean eta koherentzia-kohesioan, eta elkarreraginaren ariketari esker konpentsatzen duela jarduna.

ZUZENTASUNA B2 +

Gramatika nahiko ongi menderatzen du. Zenbaitetan ulergarritasuna galaraz dezaketen akatsak egiten ditu, batik bat aditzaren erabileran.

Atal honetan erakutsi du azterketariak maila baxuena. Deklinabide eta aditzaren erabileran egin ditu akats gehienak. Esaterako: “...*esan medusak ez dutela eraso egiten, hondartzak hartzen dituzte neurri batzuk gauza hauek ekiditeko*”.

Aditzaren erabileran egin dituen akatsak nahiko esanguratsuak dira. “egin” gehiegikeriaz erabili du zenbaitetan eta aditz laguntzailearen hautaketan ere ez du asmatu hainbatetan: “*eguzkitako krema honek medusa garroen kontra egiten dute beraz, baaa.. hortik salbu egon... dezakete*”; “*esan medusak ez dutela eraso egiten garroak ukitzean ziztatzen gaituzte; hori da egiten gaituztena...*”; “*Hondartzak hartzen dituzte neurri batzuk gauza hauek ekiditzeko*”; “*Izurri hau benetan sortarazten dituen arrazoiak deuseztatzea dela*”.

Beraz, esan liteke 3. azterketariak C1 mailari dagokion gramatika-zuzentasuna ez duela lortu gutxiatik eta atal hau gainerakoekin konpentsatu duela.

JARIOA C1

Jarioritasunez eta bat-batean jarduten du, ahaleginik ia egin gabe. Kontzeptualki zailak diren gaiekin bakarrik galtzen du jarioritasuna adierazpenetan.

Jario naturala du. Ez du eten luzerik egiten, nahiz eta “baina” asko errepikatzen duen, zailtasunak saihestu eta modu naturalean aritzen da. Beraz, esan liteke C1 maila erakutsi duela. Izan ere, jarioritasunez eta bat-batean hitz egiten du.

KOHERENTZIA C1

Diskurtso argia, jarioritasun handikoa eta nahiko ongi egituratua sortzen du, eta antolaketa-egiturak, lokailuak eta beste kohesio-mekanismo batzuk modu egokian erabiltzen ditu.

Diskurtsoa nahiko egoki antolatzen du. Ideien hurrenkera koherentea da, eta ondo lotzen ditu ideiak, noiz edo noiz ideien artean saltoak edo informazio-hutsuneak izan arren. Beraz, C1 mailakoa bada, nahiz eta ez duen beti lortu diskurtso ongi egituratuta osatzea eta kohesio-mekanismoak modu egokian erabiltzea.

ELKARRERAGINA C1

Diskurtsoaren funtzioetan eskura duen sailetik esaldi egokiak hautatzen ditu bere oharrak egiteko, hitza hartzeko edo hitzari eusteko, eta bere jarduera eta solaskidearena trebetasunez uztartzeko.

Egokitu zaion tesia egoki defendatzen du. Argudioak egoki janzten ditu, batzuetan arrazoiak emanaz eta beste batzuetan adibideren bat edo pasadizoren bat baliatuz. Bukaerako arrazonamenduetan oso ondo moldatu da. Gai da eztabaidaren erritmoari erraz jarraitzeko.

Solaskidea aintzat hartzen du (“*Izan daiteke, baina nik uste dut...*”) eta haren hitzak erabiltzen ditu adostasuna edo desadostasuna adierazteko (“*Bai, argi dago diozuna...*”) Momentu batzuetan ezin izan dute gaia garatzen jarraitu eta aztertzailearen galderei erantzun diete. Holakoetan, erraztasunez aritu da. Hortaz, 3. azterketariak C1 maila erakutsi du.